

EBAZPENA / RESOLUCION

Espediente zk./ Expediente nº: 821/2024

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Dirulaguntza zuzenak edo izendunak/ Subvenciones Directas o Nominativas

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Interesduna: ELEXALDE BHI

IFK zk.: S4833001C

Programa: Galdakaoko ikastetxeekin lankidetzan aritzea, gizarte-prestakuntza eta hizkuntza izaera nabarmena duten jarduerak gauzatzeko.

Emandako dirulaguntza: 7.194,00 €

Ekitaldia: 2024.

Erregistro zk**.**: 2024-E-RE-748 (2024/01/31) eta 2024-E-RE-2164 (2024/03/18)

Espediente zk: 821/2024

ARAUDIA

Dirulaguntzen Emakida arautzen duen Udal Ordenantza Orokorra. BAO 172 (2005/09/09) eta aldatua: BAO 23 (2008/02/01).

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) eta 28. artikulua eta Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDko 65. artikulua.

Transferentzia Arrunten Eranskina: 2024ko ekitaldirako Aurrekontuko Transferentzia Arrunten eranskinean, 21.3261.481.02 aurrekontu-partidan, *ELEXALDE BHI ikastetxeari* 7.194,00 euroko dirulaguntza izenduna ematea aurreikusita dago.

Dirulaguntzak emateko eskumena: Uztailaren 13ko 2023-1560 Dekretuak, dagokion eremuan dirulaguntzak emateko eskumena Asier Korta Ibarrari delegatzen dio.

AURRETIAZKO TXOSTENAK

1.-Hezkuntza eta Euskara teknikariaren aldeko txostena (2024/03/18).

2024(e)ko apirilaren 15(a)(e)an aldeko fiskalizazio-txostena ikusita./ Visto el informe de fiscalización favorable con fecha de 15 de abril de 2024.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN



LEHENENGOA.- Ondoren aipatzen den entitateari / elkarteari dirulaguntza ematea, hain zuzen ere, adierazitako zenbatekoan, eta zehazten den programarako:

Entitatea / elkartea: ELEXALDE BHI

IFK: S4833001C

Programa: Galdakao ikastetxeekin lankidetzan aritzea, gizarte-prestakuntza eta hizkuntza izaera nabarmena duten jarduerak gauzatzeko

Zenbatekoa: 7.194,00 €

Aurrekontu partida: 21.3261.481.02

BIGARRENA.- Aipatutako entitateari / elkarteari onetsitako kopurua ordaintzea, Galdakao Udalarekin sinatu beharreko hitzarmen arautzailearen arabera.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau onuradunei jakinaraztea eta Udal Kontu-hartzailetzari eta Diruzaintzari helaraztea, baita dirulaguntzen datu-base nazionalari ere, argitara dezan.

ERREKURTSOAK/ALEGAZIOAK/ RECURSOS/ALEGACIONES

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu(e) Bizkaiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.1.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, berraztertzeko errekursua aurkez diezaiokezu(e) ebazpena eman zuen organoari, jakinarazpen hau jaso den biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure/zuen eskubideak babesteko

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**

